

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ERRIBERAGOITIKO UDALA

#### Jendaurrean jartzea jarduera sailkatuaren lizentzia espedientea

M<sup>a</sup> Luz Sánchez Gil andreak jarduera lizentzia eskatu dio udal honi, Subilla-Morillas herrian haragitarako behien aldi baterako bizitoki gisa erabiltzen duen abeltzaintza nabe irekiari lotuta simaurtegi estali bat egin eta ustiategia hobetzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babestearen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak 58.1 eta 58.2 artikuluetan xedatutakoa betez, jendaurrean jartzen da hamabost egun balio-dunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, ezarri nahi den jarduerak nolabait kalte egiten diela uste dutenek egoki jotzen dituzten oharrak aurkeztu ahal izateko udal idazkaritzan, bertan dagoen espedientea aztertu ondoren.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Pobes, 2021eko urriaren 6a

*Alkate-lehendakaria*  
**JAVIER GALLEGO RODRIGUEZ**